

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### NEKAZARITZA SAILA

**Foru Gobernu Kontseiluaren 19/2020 Foru Dekretua, ekainaren 9koa. Aldatzea mahasti zaharrek mantentzeko eta kontserbatzeko laguntzen oinarri arautzaileak, zeinak onetsi baitziren Kontseiluaren ekainaren 26ko 30/2018 Foru Dekretuaren bidez**

Foru Gobernu Kontseiluaren ekainaren 26ko 30/2018 Foru Dekretuaren bidez, onespena eman zitzaizen mahasti zaharrek kontserbatu eta mantentzeko laguntzak arautzeko oinarriari eta laguntza lerro horren 2018rako deialdiari, eta Foru Gobernu Kontseiluaren ekainaren 4ko 366/2019 Erabakiaren bidez 2019ko deialdia onetsi zen.

Bi deialdiak ebatzi ondoren, oinarri arautzaileetako zenbait alderdi aldatu behar izan dira, kudeaketan izandako eskarmentuarekin bat.

“Zaharrek” deritzen mahastiak funtsezkoak dira Arabako Errioxako mahastien ekoizpenean; izan ere, neurri handi batean Errioxa jatorrizko deituraren gaineraketik bereizten dira. Mahasti zahar horiek balio natural eta produktibo handiko nekazaritza sistemak dira, eta eskualdean harrizko baldintza natural eta klimatiko okerretara egokitzeko, eta hori Arabako etorkizuneko mahastiak mantendu eta garatzea erraztu eta bermatzeko balio garrantzitsua da. Halaber, mahasti horiek, oro har, oso garrantzitsuak dira kalitate bereiziko ardoak egiteko, landatarrak, produktibitate gutxiak eta aniztasun handikoak baitira eta horrek, era berean, aukera asko ematen dute; hortaz, haiek eskualdean luzaroan izatearen alde egin behar da.

Beraz, gidalero horri jarraiki, eta horrelako mahastien sustapenak ahalik eta eraginkortasun handiena izan dezan, interesgarria da eskatzaileek 65 urte baino gutxiago izatearen baldintza kentzea. Era berean, eta ildo beretik, interesgarria da eragin bera sortzea merkataritza sozietateak diren pertsona juridikoengan, beren bazkideez eta akzioduneez bestelako erakundeak baitira, eta izaera eta lege-betebehar desberdinak baitituzte. Horretarako, zerga egoitzaren eta egoitza sozialaren betekizunak eta zerga betebeharren eta Gizarte Segurantzarekikoak sozietateetara mugatu behar dira, bazkideen eta akziodunen betebeharretatik bereizita.

Ildo beretik, kendu egin behar da uztailaren 1etik azaroaren 1era landaredi espontaneo edo ereindako landare estalkia mantentzeko betebeharra, bai eta data horietan lantzeko debekua ere, eremu horretan ohikoak diren laborantza metodoak ahalbidetzeko.

Halaber, 6. artikuluan jasotako zehapenen ezarpenean salbuespen bat sartu behar da, frogatu daitekeenean mahastizainak mahastien erregistroan ofizialki inskribatu den landaketa urtea hartu duela oinarritzat laguntza eskatzeko, baldin eta landa kontrol batean egiaztatzen bada data hori ez dela zuzena eta, betiere, betiere eskuragarri dagoen informazioarekin bateragarria den data laguntzarako hautagarrien artean egoteko bezain zaharra bada.

Xedapen orokorrak egiteko prozedura onesten duen Foru Gobernu Kontseiluaren maiatzaren 23ko 29/2017 Foru Dekretuan ezarritako izapide guztiak bete dira.

Horregatik, Nekazaritza Saileko foru diputatuak hala proposatuta, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bileran gaia aztertu eta onetsi ondoren, honako hau

## XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Mahasti zaharrak mantendu eta kontserbatzeko laguntzak, zeinak Foru Gobernu Kontseiluaren ekainaren 26ko 30/2018 Foru Dekretuaren eranskinean ezarrita baitaude, arautzen dituen oinarrien 2.1 artikulua c apartatua ezabatzea. Honela idatzita geratuko da:

1. Onuradun diren pertsona fisikoen betebeharrak zehazten dituen 2.1 artikulua c apartatua kendu behar da, eta gainerako apartatuak berriro zenbakitzea. Aurrerantzean honela geratuko da idatzita:

## 2.1 Pertsona fisikoak:

a) Arabako Lurralde Historikoko Nekazaritzako Ustiategiaren Erregistroan inskribatutako nekazaritza ustiategi baten titularra izatea.

b) Zerga egoitza Arabako Lurralde Historikoan edukitzea.

c) Zerga betebeharretan eta Gizarte Segurantzarekikoetan egunean egotea.

d) Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Sailak izapidetutako itzulketa edo zehapen prozedura batean ez egotea.

e) Sexuaren ziozko bereizkeria egiteagatik administrazio zehapenik edo penalik ez izatea, eta Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera debeku horren zehazpenik ezarrita ez izatea.

f) Eskatera dekretu honetan jasotakoaren arabera egitea.

Bigarrena. Mahasti zaharrak mantendu eta kontserbatzeko laguntzak, zeinak Foru Gobernu Kontseiluaren ekainaren 26ko 30/2018 Foru Dekretuaren eranskinean ezarrita baitaude, arautzen dituen oinarrien 2.2 artikulua 2. apartatua aldatzea. Honela idatzita geratuko da:

## 2.2. Pertsona juridikoak edo ustiategi elkartuak:

Ustiategi elkartuen kasuan, hala nola sozietate zibilak, titulartasun partekatua eta ondasun erkidego edo bestelako pertsona juridikoak:

a) Eskatzaileak pertsona fisikoentzat aurreko 2.1 artikuluan a), c), d), e) eta f) jasotako baldintzak bete beharko ditu.

Sozietate zibilak, titulartasun partekatua eta ondasun erkidegoak izanez gero, kide guztiek 2.1.c) artikuluan ezarritako betekizunak bete beharko dituzte.

b) Egoitza soziala eta zerga egoitza Arabako Lurralde Historikoan izatea. Sozietate zibil, ondasun erkidego edo titulartasun partekatuko ustiategietarako, betekizun hori bete dela ulertuko da Arabako Lurralde Historikoan dagoenean, eta bazkideen ehuneko 50ek gutxienez zerga egoitza Arabako Lurralde Historikoan izateaz gain, Araban kokatuta dagoen sozietate horretako kapital sozialaren gutxienez ehuneko 50eko partaidetza badute.

c) Nortasun juridikorik gabeko sozietateek ezin dute honelako laguntzarik jaso; salbuespena: jaraunspen erkidegoek jaso dezakete, baldin eta ituna egin bada gutxienez sei urtean indibisio egoeran mantentzeko. Sozietate zibilei eta ondasun erkidegoei dagokienez, eskritura publiko bihurtutako agirien bidez osatuta egon beharko dira.

d) Foru dekretu honen ondorioetarako, urriaren 4ko 35/2011 Legean xedatutakoarekin bat etorritik titulartasun partekatua duten nekazaritzako ustiategi sozietate zibilek duten tratamendu bera izango dute, baina ez dute bete behar eskritura publiko bidez eratuta egoteko betekizuna.

Hirugarrena. Mahasti zaharrak mantendu eta kontserbatzeko laguntzak, zeinak Foru Gobernu Kontseiluaren ekainaren 26ko 30/2018 Foru Dekretuaren eranskinean ezarrita baitaude, arautzen dituen oinarrien 3. artikulua aldatzea. Honela idatzita geratuko da:

**3. artikulua. “Mahasti zaharrak kontserbatzea” neurriaren betekizun eta konpromiso espezifikoa**

Aurreko artikuluan jasotako betekizunez gain, hauek ere bete beharko ditu onuradunak:

– Mahastiak 1965ekoak edo zaharragoak izango dira eta Arabako Lurralde Historikoan kokatuta egongo dira, eta gutxienez 5.000 m<sup>2</sup>-ko azalera hartuko dute.

– Araban kokatuta dauden mahasti guztiak Lurralde Historikoko Mahastien Erregistroan eta Errioxa jatorri deitura kalifikatuan inskribatuta egotea (betekizun hori baztertzaila izango da laguntza guztirako).

– Mahasti irregularrak ez izatea.

– Ustiategian dauden “mahasti zahar” guztiak kontserbatzea baldintza egokietan, kasuan kasuko laborantza lanen bidez, hala nola gutxienez mozketa bat eginez, eratze eta fruitutze egokia bermatzeko.

Laugarrena. Mahasti zaharrak mantendu eta kontserbatzeko laguntzak, zeinak Foru Gobernu Kontseiluaren ekainaren 26ko 30/2018 Foru Dekretuaren eranskinean ezarrita baitaude, arautzen dituen oinarrien 6. artikulua 7. eta 8. apartatuak aldatzea. Honela idatzita geratuko da:

6.7 Ezarritako zehapenak ez zaizkie aplikatuko laguntza edo ordainketa eskaeren zatiei, baldin eta onuradunak Nekazaritza Sailari idatziz jakinarazten badio eskaera ez dela zuzena edo zuzena izateari utzi diola eskaera aurkeztu ondoren; hori hala izango da, onuradunari jakinarazi ez bazaio agintaritza eskudunak lurrean bertan kontrola egiteko asmoa duenik eta agintaritza horrek ordurako adierazi ez badio laguntza edo ordainketa eskaeran ez betetzeak izan direnik. Era berean, ez dira aplikatuko mahastizainak Mahastien Erregistroan inskribaturik egondako landaketa urteei buruz jasotako informazioa erabili duenean, betiere eskuragarri dagoen informazioarekin bateragarria den data laguntzarako hautagarrien artean egoteko bezain zaharra bada.

6.8 Zehaztutako azalera egiaztatutako azalera ratioak mahastien adin talde bakoitzari aplikatuko zaizkie, eta ez mahasti zahar guztiari oro har. Aurreko 6.7 puntua aplikatuz gero, eta kontroletan Mahastien Erregistroan jasotakoez bestelako landaketa datak daudela antzematen direnean, adin talde bakoitzean benetan egiaztatutako azalerari dagokion laguntza ordainduko da, betiere egiaztatutako landaketa datak laguntzarako aukeratu daitekeen adin tarteren bati badagozkie.

Bostgarrena. Mahasti zaharrak mantendu eta kontserbatzeko laguntzak, zeinak Foru Gobernu Kontseiluaren ekainaren 26ko 30/2018 Foru Dekretuaren eranskinean ezarrita baitaude, arautzen dituen oinarrien 10. artikulua 1. apartatua aldatzea. Honela idatzita geratuko da:

10.1 Laguntzak izango dira onuradunei ordaintzea prima bat Arabako Lurralde Historikoan kokatutako mahasti hektarea bakoitzeko, bideratuta izenpetutako konpromisotik eratortzen diren kostu gehigarriak eta sarrera galerak (lortu gabeko irabaziak) estaltzeko. Hauxe da zenbateko hori:

LANDATZE URTEA	PRIMA EURO/HA
1930 baino lehenagokoa	600
1931-1940	540
1941-1950	420
1951-1965	300

Seigarrena. Mahasti zaharrak mantendu eta kontserbatzeko laguntzak, zeinak Foru Gobernu Kontseiluaren ekainaren 26ko 30/2018 Foru Dekretuaren eranskinean ezarrita baitaude, arautzen dituen oinarrien 12. artikulua aldatzea. Honela idatzita geratuko da:

## 12. artikulua. Eskaeraren dokumentazioa

Hauek dira aurkeztu beharreko agiriak, haiek egoki zehazteko eska daitezkeen agiri osagarriez gain:

### 12.1 Oro har:

- Inprimaki normalizatua, behar bezala beteta eta izenpetuta.
- Eskaera aurkeztean Mahastien Erregistroan inskribatutakoarekin bat ez badator, laguntza eskatzen den mahastien identifikazioa eta haiek landatutako dataren ziurtagiria.
- Pertsona fisiko edo juridiko eskatzailearen zirurtagiria, zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela adierazten duena.

Ziurtagiri horiek ez dira beharrezkoak izango eskaeran eskatzaileak berariaz baimena ematen badio Nekazaritza Sailari ziurtagiri horiek zuzenean lortzeko.

Eskatzaile sozietate zibila edo ondasun erkidego edo ustiategi baten titularkidea bada, aurrekoek gain nekazaritza ustiatetik kide guztien zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean daudela adierazten duen ziurtagiria, edo haiek eskatzeko kasuan kasuko baimenak auzeratu ditu.

- Eskatzailearen adierazpena, non hauek jasoko diren:
- Badakizkiela laguntza jasotzeko baldintzak zein diren.
- Ez duela dirulagunza edo laguntza publikoak eskuratzea eragozten duen administrazio zehapenik eta zehapen penalik, edo horretarako ezintzen duen legezko debekurik, sexu bereizkeriatatik ezarritako debekuak barne, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenean ezarritakoaren arabera.

12.2 Eratze estatutuei eta haien aldaketei eta beharrezkoak izan daitezkeen baimenei dago-kienez, unean-unean Nekazaritza Ustiategiaren Erregistroan aurkeztutakoa hartuko da kontuan, eta eskatzailearen erantzukizuna izango da informazio hori eguneratuta egotea.

12.3. Edonola ere, foru aldundiak beretzat gordetzen du eskubidea dekretu honetan aurreikusitako laguntzak eskatzen dituzten pertsona fisiko eta juridikoei eskatzeko eskaera behar bezala baloratzeko beharrezkotzat jotzen duen dokumentazio gehigarria.

12.4 Eskaeretan akatsak antzematen badira edo zerbait falta bada, organo instrukzio egileak errekerimendua egingo die interesdunei eskatzen diren baldintzei buruzko akatsak konpontzeko eta/edo eskatzen diren agiriak aurkezteko 10 egun baliouduneko epean, errekerimenduaren jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, eta adieraziko die hori egin ezean atzera egin dutela ulertuko dela, Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68.1 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Azken xedapenetatik lehenengoa. Nekazaritza Saileko foru diputatuari ahalmena ematea foru dekretu hau garatu eta aplikatzeko eman beharreko xedapenak eman ditzan.

Azken xedapenetatik bigarrena. Foru dekretu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko ekainaren 9a

*Diputatu nagusia*

**RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE**

*Nekazaritza Saileko foru diputatua*

**EDUARDO AGUINACO LÓPEZ DE SUSO**

*Nekazaritza zuzendaria*

**M<sup>a</sup> ASUNCIÓN QUINTANA URIARTE**